

Kontsumobideren online Prestakuntza Unitatearen irakaskuntza plana

INDEPENDIZATUKO ZARA? BIZIRAUTEKO ETA KONTSUMO ARDURATSUKO KITA (4.EDIZIOA)

Prestakuntzako proposamen bat UPV/EHUko ikasleentzat

- Prestakuntzaren iraupena: 7 aste
- Dedikazioa: 25 ordu (ECTS kreditu bat)
- Ikastaroaren hizkuntza: euskara eta gaztelania
- Irakasle taldea: Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren prestakuntza zentroak

INDEPENDIZATUKO ZARA?

BIZIRAUTEKO ETA KONTSUMO ARDURATSUKO KITA.

ETXETIK KANPO BIZITZEKO GOMENDIOAK.

1. Aurkezpena

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua¹ Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako erakunde autonomoa da, eta haren helburua da gobernuaren politikak definitzea, planifikatzea, bultzatzea eta gauzatzea, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko.

Kontsumobideren helburu nagusietako bat da kontsumitzaileengan jakintza bultzatzea prestakuntzaren eta informazioaren bidez, eta herritarrak prestatzea, modu seguru, jasangarri eta arduratsuan kontsumi dezaten. Horregatik, beharrezko jarraibideak eta jakintzak eman nahi dizkizue Kontsumobidek, zuen eskubideei eta eskubide horiek erabiltzeko moduari buruz orientatzeko, prestatzeko eta informazioa emateko.

Ikastaro honetan hainbat gai landuko dira, guztiak ere zerikusia dutenak gazteek emantzipatu aurretik eta emantzipazioan kontuan hartu beharreko gauzeekin. Ikastaroa online egingo da; lehenengo saioan aurkezpena egingo da, eta ondoren, aste bakoitzean gai bat landuko da. Gai bakoitzak izango ditu zati teorikoa, zati praktikoa edo esploraziokoa, eta test bat ikasitakoa ebaluatzeko. Gainera, Kontsumobideko langileek tutoretza lana egingo dute ikastaroak irauten duen bitartean, eta parte hartzen duten ikasleek nahi beste zalantza galdetu edo kontsulta egin diezazkiekete.

Gaiak honako hauek dira:

- Zer egin dezake Kontsumobidek zuegatik? Nobedadeak!
- Etxea alokatu ala erosi egingo dut?
- Etxeko ekonomia. Nork kudeatzen du etxeko dirua?
- Etxeko hornidurak. Zer ordaindu behar dut?
- Erosketak egitera noa. Zer dago etiketen atzean?

¹ <https://www.kontsumobide.euskadi.eus/hasiera/>

- Banku eragiketak. Zer zerbitzu eskaintzen dituzte?
- Kontsumo soziala eta ekologikoa. Norabide berria.

Ikastaro hau UPV/EHUn eskaintzen diren gradu eta graduondoetako ikasleentzat da, kontsumo eskubideen berri izan eta modu arduratsuan kontsumitzen ikasteko.

2. Gaitasunak

Ikastaroa amaitzean, parte hartzaileek **gaitasun hauek** eskuratzea espero da:

1. Kontsumoaren arloan dituzuen eskubideak defendatzen jakitea eta zuen betebeharrak ezagutzea.
2. Egungo kontsumo ereduen inguruan jarrera kritikoa izatea, eta etorkizunari begira ikuspegi eraldatzailea.
3. Pentsamendu kritikoa izatea eta, aldi berean, kontsumitzean modu autonomoan eta arduratsuan jardutea.

3. Helburuak

Ikastaroa gainditzen duzuenok **ikaskuntza emaitza** hauek lortzea espero da:

1. Gure eskubideak zaintzen dituzten erakundeak eta kontsumoaren alorreko gatazkak erreklamatzeko mekanismoak ezagutzea.
2. Emantzipazio prozesuan kontsumoaren alorrean egon daitezkeen gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko informazio nahikoa izatea.
3. Produktuen eta zerbitzuen kontsumoari buruz hausnartzeko gune bat izatea.
4. Gure kontsumoko ekintzen garrantzia ulertzea, eta jakitea horrek zer inplikazio dituen norbanakoan, gizartean eta ingurumenean.

4. Edukiak

Ikastaroaren edukiak 7 modulu tematikotan edo erronkatan egituratu dira, honela banatuta:

1. ERRONKA: Zer egin dezake Kontsumobidek zuegatik? Nobedadeak!

- Zer da Kontsumobide? Zer zerbitzu eskaintzen ditu?
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- Kontsumoaren alorreko gatazkak erreklamatzeko mekanismoak eta erakundeak.

- Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutu berria.

2. ERRONKA: Etxea alokatu ala erosi egingo dut?

- Izapideak: kontratuak, fidantzak, iraupena, errentamendua...
- Etxebizitzak ikustera noa. Zertan jarri behar dut arreta?
- Noren kontura? Kontratazioa eta fakturazioa.
- Nora jo dezaket? Eskumena duten erakunde publikoak.
- Non aurki ditzaket laguntzak?

3. ERRONKA: Etxeko ekonomia. Nork kudeatzen du etxeko dirua?

- Gastu finkoak, aldakorrak eta ustekabeak.
- Hileko aurrekontua. Kakebo txantiloak.
- Gainzorpetzea. Nola saihestu dezaket?

4. ERRONKA: Hornidurak eta fakturak. Zer ordaindu behar dut?

- Ura. Zer ordaindu behar dut?
- Argia. Ezinbestekoa, baina garestia.
- Gasa. Motorrak berotzen.
- Telefonoa. Tresna elektronikoko bat baino zerbait gehiago.
- Energia aurrezteko neurriak eta energia efizientziaren etiketa.

5. ERRONKA: Erosketak egitera noa. Zer dago etiketen atzean?

- Elikagaiak. Dena ez da dirudiena.
- Oinetakoak eta arropa. Dena ez da moda.
- Ezagutzen dituzu sinbolo hauek? Erosketa berdea.
- Arazoak dituzu erosi duzunarekin? Konpon ditzagun.

6. ERRONKA: Banku eragiketak. Zer zerbitzu eskaintzen dituzte?

- Banku sistema.
- Eskaintzen dituzten zerbitzuak. Zein komeni zait?
- Eskubideak eta betebeharrak banketxearen aurrean.
- Erreklamatzeko bideak.

7. ERRONKA: Kontsumo soziala eta ekologikoa. Norabide berria.

- Zer mundutan bizi gara?
- Zaharkitze programatua-Ekonomia zirkularra: nola lortu gauzek gehiago irautea?
- Ohiko kontsumoaren alternatibak.

5. Laneko metodologia

Ikastaroa UPV/EHUko kide guztientzat da, eta, horregatik, online eta parte-hartzaile bakoitzak erabakitzen duen erritmoan lantzeko moduan planteatu dira erronkak, gai edo erronka bakoitza landuko den astearen barruan.

Ikastaroari hasiera emateko, ordubeteko zuzeneko saio online bat egingo da, ikastaroaren ezaugarriak, metodologia eta laneko plana aurkezteko.

Aurkezpena egiten denetik hasita, material guztiak eGelapi plataforman jarriko dira (<https://egelapi.ehu.eus/login/index.php>), eta han egongo dira eskuragarri moduluen edukiak. Erronka guztiek PDF nabigarri bat dute, ikus-entzunezko material, irakurtzeko artikulua, webguneko material eta egin beharreko dinamiketara bertatik sartzeko. Modulu guztietan material osagarria egongo da, kontsultatu edo deskargatu ahal izateko.

Erronka bakoitzeko azalpenen zatia eta zati praktikoa amaitu ostean, kasu praktikoa bat egongo da, ikasitakoa praktikan jartzeko. Modulu guztietan egin behar da horrelako jardura bat, eta Kontsumobidera bidaliko da ebalua dezaten, jardura test formatukoa denean izan ezik, horrelakoak autoebaluagarriak izango baitira.

Gainera, tutoretza zerbitzua egongo da online eta/edo telefono bidez, sortzen diren zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko. Tutoretza asteazkenero egin daiteke, 09:00etatik 14:00etara, ikastaroak irauten duen bitartean.

Ikastaroa gainditutzat emango da, baldin eta ikastaroa amaitzean jardura praktikoa guztiak entregatu badira.

6. Laneko plana

Laneko plana **7 modulu tematikoren** inguruan ezarri da.

Gai bakoitzerako ezarritako denbora **astebete** da, eta hasieran beti egongo da zati teorikoa bat, ondoren jarduerak egongo dira jakintzak osatzeko, eta amaitzeko, esleitutako zeregina bete behar da. Moduluak ez dute loturarik elkarren artean, baina tutoretzak errazteko, zehaztuta dago gai bakoitza zer astetan landuko den.

Horrez gain, derrigorrezko zenbait zeregin bete behar dira, eta parte-hartzaileen autoebaluazioa eta ebaluazio jarraitua egiteko balioko dute.

Erronka bakoitza amaitzean, ikasleek nabigazio egunkari moduko bat izango dute, bertan jasotzeko ikasitakoaren alderdirik garrantzitsuenak, bai eta eguneroko ohituretan aplikatzeko ikuspegia ere.

Jarraian, modulu bakoitzaren laneko plana adierazi da, modu eskematikoan.

| | |
|--|--|
| 1. ERRONKA: Zer egin dezake Kontsumobidek zuegatik? Nobedadeak! | <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen teorikoa • Bideoak eta multimedia materiala • Irakurketa: Kontsumitzaileen Estatutu berria • Kasu praktikoa. Benetako egoera. Zer urrats emango zenituzke? • Nabigazio koaderno |
| 2. ERRONKA: Etxea alokatu ala erosi egingo dut? | <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen teorikoa • Etxebizitzak ikustera noa • Nora joko dut? Web estekak • Kasu praktikoa: merkatua arakutzen • Autoebaluazio testa • Nabigazio koaderno |
| 3. ERRONKA: Etxeko ekonomia. Nork kudeatzen du etxeko dirua? | <ul style="list-style-type: none"> • Sarrerako dinamika • Azalpen teorikoa • Multimedia materiala • Erreparatzeko jarduera • Kasu praktikoa: Kakebo • Nabigazio koaderno |
| 4. ERRONKA: Hornidurak eta fakturak. Zer ordaindu behar dut? | <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen teorikoa • Jarduera praktikoa: fakturak deszifratzen • Multimedia materiala • Erreparatzeko jarduera • Nabigazio koaderno |
| 5. ERRONKA: Erosketak egitera noa. Zer dago etiketen atzean? | <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen teorikoa • Kontserbazioko etiketen joko • Erosketa berdeko zigiluaren dinamika • Web estekak eta multimedia materiala • Esperimentazio jarduera. Bilatuko dut... • Nabigazio koaderno |
| 6. ERRONKA: Banku eragiketak. Zer zerbitzu eskaintzen dituzte? | <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen teorikoa • Banku zerbitzuen dinamika • Web estekak eta multimedia materiala • Kasu praktikoa: bankuarekin ditudan arazoak konpontzen • Nabigazio koaderno |

7. ERRONKA:
Kontsumo soziala eta ekologikoa. Norabide berria.

- Sarrerako bideoa
- Hausnarketarako azalpena
- Kasu praktikoa: ohiko kontsumoaren alternatibak
- Nabigazio koaderno

7. Ebaluazioa eta ziurtapena

Erronka bakoitzean bildutako zereginen helburu dute neurtzea parte-hartzaileek zenbat ikasi duten, eta jakintza hori zenbateraino erabiltzen duten eguneroko bizitzan.

Ikastaroa gainditu eta dagokion egiaztatzea jasotzeko, beharrezkoa izango da:

- Modulu bakoitzean planteatutako zereginen % 90 egitea, bai zati teorikoan, bai praktikoan.
- Kasu praktikoen eta planteatutako erronketako testen % 80 gainditzea.

Ikastaroa gainditzen duten graduiko ikasleek hautazko ECTS kreditu bat baliozkotzeko eskatu ahal izango dute.

Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko (EHAA, 119. zk., 2012ko ekainaren 19a) Erabakiaren bidez argitara emandako graduiko ikasketetan kredituak transferitzeari eta onartzeari buruzko Arautegiaren 11.4 a) artikulua arabera, **hautazko kredituak** amortizatu daitezke, Unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako prestakuntzako kultura jarduerak (ikastaroak, mintegiak, biltzarrak, etab.) egiteagatik. Horretarako, ikastaroa gainditu ondoren jasotako ziurtagiria aurkeztu behar da parte-hartzaile bakoitza matrikulatuta dagoen ikastegiko idazkaritzan, horretarako ezarritako epeetan. Dagozkion izapideak egin eta prezio publikoak ordaindu ondoren, kreditu horiek parte-hartzaileen espedienteetan sartuko dira.

8. Egutegia

Hurrengo taulan, modulu bakoitzerako aurreikusitako dedikazio denbora zehaztu da.

| JARDUERA | Aurreikusitako denbora | Hasiera data | Amaiera data |
|---|------------------------|---------------------------------|--------------|
| <i>Ikastaroaren aurkezpena. Online eta zuzeneko emisioa.</i> | 1h | 2025/02/03 13:00etan | - |
| ERRONKA 1 | 3h | 2025/02/03 | 2025/02/09 |
| ERRONKA 2 | 3h | 2025/02/10 | 2025/02/16 |
| ERRONKA 3 | 3h | 2025/02/17 | 2025/02/23 |
| ERRONKA 4 | 3h | 2025/02/24 | 2025/03/02 |
| ERRONKA 5 | 3h | 2025/03/03 | 2025/03/09 |
| ERRONKA 6 | 3h | 2025/03/10 | 2025/03/16 |
| ERRONKA 7 | 3h | 2025/03/17 | 2025/03/23 |
| Nabigazio koaderno | 2h | 2025/02/03 | 23/03/2025 |